eusko

## Euskal herri ekologistago, euskaldunago eta solidarioago baten alde

# Euskoa, nik ere bai!

**Europako tokiko monetarik handiena**
**4,5 milioi eusko zirkulazioan**
**4.300 erabiltzaile partikular**
**1.400 profesional**
**40 elkargo kide, haietan**
**Euskal Hirigune Elkargoa**




**Euskal Herriko moneta**

euskopay

IREKI EUSKO KONTUA
5 MINUTUZ

**euskalmoneta.org**

# Zergatik erabili Euskal Herriko moneta?

eusko 1 = euro 1

## Ekonomia birkokatzeko

Lurraldetik laster aterako den euro bat ez bezala, eusko bat Ipar Euskal Herrian bakarrik ibiliko da, eta ondorioz tokiko ekonomia eta enplegua babestuko ditu.

## Trantsizio ekologikoa zalutzeko

Tokiko monetak zirkuitu laburrak garatzen ditu. Euskoren araudi nagusiak baztertzen ditu ekologia mailan arduratsuak ez diren jardunbideak.
Euskoz aldatu dituzun euroak banku etiko eta solidarioetako berme-funtsetan uzten dira: Crédit Coopératif eta Nef. Banku hauek jendarte eta ingurumen arloko proiektuak diruztatzen dituzte.

## Euskara biziarazteko

Eusko sarean sartzeko euskal hiztuna izatea beharrezkoa ez bada ere, euskararen biziaraztea da gure oinarriko baloreetarik bat. Profesionalei bi desafio proposatzen zaizkie: euskarazko harrera edo afixaketa elebiduna.



## Elkarteak sostengatzeko

Tokiko monetaren kide den pertsona bakoitzak babestu nahi duen elkarte bat hauta dezake. Eta elkarte horrek 30 babesle kausitzen dituelarik, bere babesle guziek euskotan trukatu zenbatekoaren % 3 eskuratzen du, urte guziez.
Emaitza hori ez da truketik hartzen, gehigarri gisa ematen da: hilabetean 100 € trukatzen dituen erabiltzaile batek 100 eusko eskuratzen ditu; eta, gainera, Euskal Monetak 3 eusko ematen dizkio babestutako elkarteari.

**Jadanik 400.000 eusko banatu zaizkie 70 bat elkarteri!**

**Euskoarekin, gure etorkizuna eskutan har dezagun!**



eusko


Cordeliers karrika, 38 – 64100 Baiona
05 33 47 54 11 - info@euskalmoneta.org



Pays Basque Euskal Herria – Communauté d'agglomération – Hirigune Elkargoa
Région Nouvelle-Aquitaine
Ministère de l'Éducation nationale et de la Jeunesse
FDVA Fonds pour le développement de la vie associative
Euskararen erakunde publikoa – Office public de la langue basque



Diseinua: risoornothing.com
Ez bota lurrera


©Bertrand Lanneau © Isabelle Miquelestorena


# Nola eusko erabili?

## Eusko kontu bat irekitzen dut

Tokiko moneta erabiltzeko, aski da kide izatea (hilabetean 2 €). Joan www.euskalmoneta.org webgunera, klik egin "Kide bilakatu" atalean eta segi jarraibideak. RIB eta nortasun agiria besterik ez dituzu behar.

## Euroak euskotan aldatzen ditut

Truke automatikoa hilabeteko 10. egunean egiten da. Zenbatekoa edozein momentutan alda dezakezu zure Eusko kontutik: moncompte.euskalmoneta.org
Eusko kontua ere bete dezakezu, momentuan berean eta gasturik gabe, banku-txartel bidez. Sar zaitez zure eusko kontuan, "Trukea" atalean, eta, gero, "Nire kontuan dirua sartu" atalean.

## Sareko profesionalak begiztatzen ditut

Ezagut itzazu Euskoren kide diren 1.400 profesionalak, gure lineako aurkitegiari edo gure 7 eskualdeko aurkitegiei esker (gure webgunean aurkituko dituzu).

## Tokiko monetan ordaintzen dut

**euskopay** ordainketa-aplikazioa aterabide praktikoena da: QR kodea eskaneatu, zenbatekoa sartu, baieztatu, eta ordaindua da!

**Eusko billeteak** eskuratzeko, zoaz gure truke-bulegoetako batera. Bulego horien zerrenda aurkituko duzu aurkitegia.euskalmoneta.org webgunean edo gure webguneko "Partikularrak" ataleko "Aldaguneak" atalean Han, zure Eusko kontutik kenduko diren billeteak jaso edo txeke edo diruaren kontra truka ditzakezu.

**Profesionalek zure euskoak berrerabiltzen dituzte, eta, hala, euskoek Euskal Herrian zirkulatzen jarraitzen dute!**

eusko

## Pour un Pays Basque plus écologique, euskaldun et solidaire




## La monnaie locale du **Pays Basque**

euskopay

# je m'y mets !

**1ère monnaie locale d'Europe**
**4,5 millions d'eusko en circulation**
**4300 particuliers**
**1400 professionnels**
**40 collectivités adhérentes, dont la Communauté d'Agglomération Pays Basque**

OUVREZ UN COMPTE EUSKO EN 5 MINUTES

**euskalmoneta.org**

1 eusko = 1 euro

# Pourquoi utiliser la monnaie locale du Pays Basque ?

## Pour **relocaliser** l'économie

A la différence d'un euro, qui va rapidement quitter le territoire, un eusko va circuler uniquement sur le Pays Basque, et soutenir l'économie et l'emploi local.

## Pour **accélérer** la transition écologique

La monnaie locale développe les circuits courts, et la Charte de l'Eusko exclut les pratiques écologiquement non responsables.
Vos euros convertis en eusko sont placés dans un fonds de garantie au sein de banques éthiques et solidaires : le Crédit Coopératif et la Nef, qui financent des projets à forte plus-value sociale et environnementale.

## Pour **faire vivre** la langue basque

Même s'il n'est pas nécessaire de parler euskara pour adhérer, faire vivre la langue basque est l'une de nos valeurs fondatrices. Deux défis sont proposés aux professionnels : l'accueil en euskara ou l'affichage bilingue.

**Ensemble avec l'Eusko, prenons notre avenir en main**





## Pour **soutenir** les associations

Chaque adhérent·e à la monnaie locale peut choisir une association à parrainer. Et lorsque cette dernière atteint 30 parrains, elle reçoit chaque année 3% du montant changé en eusko par l'ensemble de ses parrains.
Ce don n'est pas prélevé sur le change, c'est donné en supplément : un utilisateur qui change 100€ par mois va bien recevoir 100 eusko, et l'Eusko va verser 3 eusko à l'association parrainée.

**Déjà 400 000 eusko distribués à 70 associations !**

eusko


38, rue des Cordeliers – 64100 Bayonne
05 33 47 54 11 - info@euskalmoneta.org



design by risoornothing.com
Ne pas jeter sur la voie plublique
©Bertrand Lanneau © Isabelle Miquelestorena


# Comment s'y mettre ?

## J'ouvre un compte eusko

Pour utiliser la monnaie locale, il suffit d'être adhérent·e (2€ par mois). Rendez-vous sur www.euskalmoneta.org, cliquez sur « Ouvrir un compte » et laissez-vous guider. Vous avez juste besoin de votre RIB et d'une pièce d'identité.

## Je change des euros en eusko

Le change automatique mensuel a lieu le 10 du mois, et son montant est modifiable à tout moment sur votre compte eusko : moncompte.euskalmoneta.org
Vous pouvez aussi charger votre compte eusko instantanément et sans frais par carte bancaire. Rendez-vous sur votre compte eusko, rubrique « Change », puis « Créditer mon compte ».

## Je repère les professionnels du réseau

Faites le tour des 1400 professionnels engagés avec l'Eusko grâce à notre annuaire en ligne ou nos 7 annuaires de zones (à retrouver sur notre site internet).

## Je paie en monnaie locale

L'application sécurisée **euskopay** est la solution la plus pratique : scannez le QR code, saisissez le montant, confirmez, et c'est payé !

Pour obtenir des **billets d'eusko**, rendez-vous dans l'un de nos bureaux de change, à retrouver sur annuaire.euskalmoneta.org ou sur notre site, dans l'onglet « Particuliers ».
Vous pourrez y retirer des billets depuis votre compte eusko, ou faire du change contre un chèque ou des espèces.

**Les professionnels réutilisent vos eusko, qui continuent à circuler au Pays Basque !**